| **BAZTERTUAK erakusketa**<br>**Otsailaren 23tik apirilaren 24ra** | **Exposición DESCARTADAS**<br>**Del 23 de febrero al 24 de abril** |
|---|---|
| Argazki-erakusketa da Baztertuak, Marc Espín kazetariak Tecoluca landa-komunitateetako 15 emakume adinekori ateratako argazkiez osatua, Lempa ibaiaren beheko eskualdeko emakume horien eguneroko bizimodua erakusten diguna. Estatuak eta gizarteak ahaztutako emakumeak dira, eta haien erresistentzia historiaren bidez, Erdialdeko Amerika osoko ehunka eta milaka emakume adinekoren erresistentzia-historia ikus dezakegu.<br><br>Baztertuak ez da El Salvadorri buruzko erakusketa bakarrik. Belaunaldien eta eskualdeen arteko elkarrizketa-gune bat ere bada, eta, hala, galdera deseroso batzuk egiten dizkigu, bizi garen mundu basati honen gainean. Esate baterako, nola ikusi eta bizi behar da zahartzaroa? Posible al da hainbeste jende baztertzea? Zer da emakume adinekoa izatea hemen eta zer da hemendik kanpora? Zer erantzukizun dakarte gure pribilegioek?<br><br>Adineko emakumeek El Salvadorren bizi duten abandonua dokumentatzen duten 15 erretratu eta historia horiekin batera bideo batzuk ere badaude, emakume haien eta Donostiako adineko pertsona batzuen arteko elkarrizketa planteatzen dutenak, elkarrizketa gurutzatuen bidez. | Descartadas es una exposición fotográfica del periodista Marc Espín que nos acerca a la cotidianeidad de 15 mujeres adultas mayores salvadoreñas de las comunidades rurales de Tecoluca, en la región del bajo río Lempa. Son mujeres olvidadas por el Estado y por la sociedad, en cuyas historias de resistencia cobran vida las de cientos de miles de mujeres mayores de toda Centroamérica.<br><br>Descartadas no es únicamente una exposición sobre El Salvador. Es un espacio de conversación intergeneracional e interregional y nos plantea preguntas incómodas sobre este mundo salvaje en el que vivimos: ¿cómo debe ser percibida y vivida la vejez?, ¿es posible seguir desechando, descartando, a tanta gente?, ¿qué es ser mujer mayor aquí y qué es serlo allá?, ¿qué responsabilidades implican nuestros privilegios?<br><br>Estos 15 retratos e historias que documentan el abandono de las mujeres adultas mayores en El Salvador van acompañados de unos vídeos que plantean un diálogo entre estas y sus homólogas donostiarras mediante entrevistas cruzadas. |

**Mahai-ingurua**

**<u>ZAHARTZEAREN ERRONKAK EL SALVADORREN ETA EUSKADIN</u>**

Baztertuak erakusketaren aurkezpena dela eta egin behar dugu mahai-inguru honetan, bi lekukotasun izango ditugu, El Salvadorreko eta Euskadiko adineko pertsonen eskubideen eta duintasunaren alde borroka egiten duten bi aktibistarenak: Maria Luisa Mendizabal eta Emilio Espín.

Erakusketako argazkiak atera dituen Marc Espínek berak aurkeztu eta moderatuko elkarrizketa, eta asmoa da gogoeta eginaraztea zahartzaroaren pertzepzioaz, adineko emakumeek dituzten zailtasunez (eta horien kausa eta erronkez) eta garapen-bidean den Erdialdeko Amerikako herrialde batean zahartzearen eta gure lurraldean zahartzearen artean dauden antzekotasunez eta kontrasteez.

**Emilio Espín** erreferente bat da El Salvadorreko adinekoen giza eskubideen aldeko borrokan. Bakearen Kultura saria eman zion Giza Eskubideak defendatzeko Salvadorreko Prokuradoretzak 2017an, haren lanak adinekoen ongizaterako funtsezko legeen onarpenean izandako eraginagatik; El Salvadorreko Adineko Pertsonen Duintasunaren aldeko Koalizioaren koordinatzailea da; ARTE,

**Mesa Redonda**

**<u>LOS DESAFÍOS DEL ENVEJECIMIENTO EN EL SALVADOR Y EL PAÍS VASCO</u>**

En esta mesa redonda, convocada en el marco de la presentación de la exposición Descartadas, contaremos con los testimonios de dos activistas y luchadoras por los derechos y la dignidad de las personas mayores tanto de El Salvador como del País Vasco: Maria Luisa Mendizabal y Emilio Espín.

El diálogo, presentado y moderado por el autor de la exposición, Marc Espín, quiere fomentar la reflexión sobre la percepción de la vejez, sobre las dificultades que afrontan las mujeres mayores, sus causas y desafíos, y sobre las similitudes y los contrastes que existen entre envejecer en un país centroamericano en vías de desarrollo y en nuestro territorio.

**Emilio Espín** es un referente de la lucha por los derechos humanos de las personas adultas mayores en El Salvador. Fue galardonado con el premio Cultura de Paz en 2017 otorgado por la *Procuraduría salvadoreña para la defensa de los Derechos Humanos,* por la incidencia de su trabajo en la aprobación de leyes fundamentales para el bienestar de las personas mayores. Es coordinador de la Coalición por la Dignidad de las Personas Adultas Mayores en El

| | |
|---|---|
| Hirugarren Adinekoen Landa Elkartearen sortzailea, eta CORDES gobernuz kanpoko erakundearen adinekoen arduraduna.<br><br>**Maria Luisa Mendizabal** adineko pertsonen beharrekin konprometituta dagoen emakumea da, eta Euskadiko elkarte batean baino gehiagotan parte hartzen du. Hogei urte baino gehiago daramatza pertsonen zaintza arloan; Gizarte Zerbitzu Integratuen Kooperatiba (SSI) taldea sortzea bultzatu zuen (Zilargi saria izan zuen horregatik 2017an), eta gaur egun gogotik ari da lanean Sopuertako Emakumeen Elkartean.<br><br>**Marc Espín** kazetaria da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea, Descartados GKEko presidentea eta erakusketaren egilea.<br>**Eguna: Martxoak 3, osteguna**<br>**Ordua: 18:30-20:00**<br>Tokia: Kutxa Kultur Plaza (Tabakalerako 4. solairua)<br><br>Sarrera librea lekuak bete arte<br><br>**Antolatzaileak:**<br><br>Donostiako Udala (Lankidetza eta Lagunkoia)<br>Kutxa Fundazioa<br>Baztertuak GKEa<br>TAU Fundazioa | Salvador, fundador de ARTE (Asociación Rural de la Tercera Edad) y responsable de adulto mayor de la oenegé CORDES.<br><br>**Maria Luisa Mendizabal es** una mujer comprometida con las necesidades de las personas mayores y participa en diversas asociaciones del País Vasco. Tiene más de veinte años de experiencia en el ámbito de los cuidados a personas, impulsó la creación del Grupo SSI (Cooperativa Servicios Sociales Integrados), premio Zilargi en 2017) y actualmente participa activamente en la asociación de Mujeres de Sopuerta.<br><br>***Marc Espín es*** periodista, profesor de la Universidad Autónoma de Barcelona, presidente de la ONG Descartados y autor de la exposición.<br>**Fecha: jueves 3 de marzo.**<br>**Hora: 18:30-20:00**<br>Lugar: Kutxa Kultur Plaza (4º planta Tabakalera)<br><br>Entrada libre hasta completar aforo<br><br>**Organizan:**<br><br>Ayuntamiento de Donostia (Cooperación y Lagunkoia)<br>**Kutxa Fundazioa**<br>Descartados ONG<br>TAU Fundazioa |